

IKUSMIRAN 14

egoeraren azterketa

Zaintzak

Bizitzaren sostengurako
ezinbesteko lanak
prekarizatuak daude

MONOGRAFIKOA · 2023ko azaroa

14

Ikusmiran 14 | 2023ko azaroa

Zaintzak

Bizitzaren sostengurako ezinbesteko lanak
prekarizatuak daude

AURKIBIDEA

ZAINTZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIO BATERANTZ	6
Zaintza ereduaren argazkiaren balorazioa:.....	7
AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK	9
1. Zaintzara emandako enplegua eta lan guztiak prekarioak dira	9
- Lana edo etxetik kanpoko enplegua izan arren, bizitza duina bermatzeko diru sarrera nahikorik ez.....	9
- Prekarioak izan arren, BPG-arekiko pisu handia.....	10
2. Zaintza lanetan emakumeei inosatzen zaie ardura nagusia	11
- Etxeko lan eta zaintza lanen ardura nagusia emakumeena da	11
- Etxeko langileen sistema berezian afiliaturiko langileen %96,13a emakumea eta %43,34ak espainiar estatutik kanpoko jatorria du	13
- Zaintzara loturiko enpleguak feminizatuak daude	14
3. Zaintza lan ez ordainduen bidez, kapitalak doako langileak eskuratu ditu...	14
- Etxeko lanetara emanda daudenen artean, %87,97a emakumeak dira	14
- Etxeko lanetara emanda dauden emakumeek Gutxieneko Soldata jasoko balute, 2024rako Eusko Jaurilaritzaren Aurrekontu Proiektuaren %24a suposatuko luke	14
- Etxeko lanetan diharduten emakumeen lanaldia, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako maisu/maistra baten ia hirukoitza da edota Bizkaiko Metaleko Lan Hitzarmenean jasotakoa baino %45 handiagoa.	15
4. ...eta zaintza sektoreko enpleguak gutxietsi ditu, ekonomikoki eta sozialki, erregimen orokorreko langileen %8,38a izan arren	15
- Etxeko langileen lan baldintzak prekarioak eta legez kanpokoak dira maiz.....	16
- Etxez- etxeko zerbitzuan, azpikontratazioa da nagusi	17
- Prekarietatea, erresidentzietako langileen soldatan ere bai	17
- Pribatizazioak lan baldintzen eta zerbitzuaren kalitatea okertzen ditu.....	17
5. Egoera estrukturala da	19
- Langabetuen %58,40 emakumea da	19
- Emakumeen %23ak behin behineko kontratua du	19
- Emakumeen %25,4ak lanaldi partziala du	19
- Gero eta emakume gehiago lan bila, bizi unitatea sostengatzeko lanaldi bikoitzera behartuak	20
- Soldata arrakala egiturazkoa da.....	20

Bizitza sostengatzeko zaintza lanak ezinbestekoak direla gero eta onartuago egon arren, Euskal Herrian ere ikusezin jarraitzen dute, eremu pribatuan, ezkutuko ekonomian maiz eta inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe. Zaintzari emandako enpleguaren kasuan, lan baldintza prekarioak dira nagusi eta sektore hauetan gero eta gehiago ematen diren pribatizazio prozesuek errealitate hau larriagotu egiten dute.

Kapitalismoak bizitza eta kapitalaren arteko gatazka muturrera eraman du kapitala metatzen jarraitzeko asmo horretan, unibertuala beharko lukeen zerbitzua pribatizatuz, lan baldintzak prekarizatuz, zaintza lanak emakumeari inposatuz... Azken batean, zaintza lanak bizitzaren esplotaziorako bide gisa egituratuz.

Eskuartean duzuen azterketa lana Ipar Hegoa Fundazioak eginikoa da, LAB sindikatuko Idazkaritza Feministaren eskariz, Greba Oroko Feministaren testuinguruan, zaintzen benetako argazkia argitara emateko asmoz. Zaintza lanok ezkutuan, aitortzarik gabe edota prekarioak izatea, sistemak berak harturiko erabaki politikoa da, ez ausaz ematen diren joerak. Ildo berean, errealitate gordin hau islatuko dituen datuak lortzeko zailtasunak izan ditugu, egoera iraultzeko dagoen borondate politikoen adierazle.

Era berean, Euskal Herria osatzen duten lurralde guztien eta bakoitzaren datuak lortzea, kasu askotan, ezinezkoa izan da. Batetik, datu estatistikoak egon arren, metodologia komun baten arabekoak ez izatearen ondorioz, alderaketak, gurutzaketak edota datu pilaketak egitea ezinezkoa izan da. Bestetik, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa lurralde egituraketa propiorik ez edukitzeak, azterketa eremua zabaltzen du eta aipatu hiru lurraldeen gaineko datu espezifikorik ez dago. Amaitzeko, datu estatistikoak egon arren, egoera eraldatzeko adierazleak aztertu baino, egoera bera iraunarazten laguntzen duten adierazleak aztertzen dira.

Hori dela eta, egoki jo dugu begirada atzera botatzea eta gaur eguneko beste zenbait adierazlerekin alderaketa zein gurutzaketak egitea, egiturazko errealitate honen gaineko ondorio nagusiak osatzeko.

ZAINZA SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIO BATERANTZ

Greba Feminista Orokorren atarian gaude zaintza krisia politizatzen, zaintza sistema publiko komunitario aldarrikatzen eta zaintzaileen lan baldintzak hobetzeko exijitzen gabiltza aspaldi. Baina zer dago gaur egun zaintza ekosistema honen atzean?

- 1. Sistema kapitalista kolonialista eta heteropatriarakal inposatzen duen sexuaren arabeko lan banaketak eta zaintzan emakumeoi* esleitzen digun rolak prekaritate eta pobrezia eramaten gaitu.

Izan ere, aztertu ditugun zaintza sektoreetako batezbesteko soldatak KPI-aren arabera eguneraturiko Gutxieneko Soldataren (1.570€) azpitik dago. Enpleguaren mundutik kanpo, eremu pribatua zaintza lanetan aritzen diren milaka emakume (163.000 inguru) gaude, inolako ordain ekonomiko edo lan-saririk jasotzen ez dutenak. Soldatapeko lan merkatu arautuan dauden emakumeei ere eragiten die honek: alde batetik, zaintza sektorean lan egiten duten emakumeen baldintzak eskasak direlako (bereziki pribatizatutako eremuetan) eta beste alde batetik orokorrean enpleguan (nahiz eta beste sektore batzuetan lan egin) zaintza "kargak" izatea eragina daukalako: kontratu mugatuak, lanaldi partzialak... Lanaldi bikoitza egitera behartuak gaude.

Baina zaintza lanak dira bere horretan prekarioak? Ez, guk zaintzaren balioa aldarrikatzen dugu, baina zaintza lanei ematen zaien balio eta aitortza sozial, politiko eta ekonomikorik ezagatik gaude emakumeok egoera honetan.

- 2. Honek, sistemari onurak ekartzen dizkio. Beste era batera esanda, sistema emakumeon "esplotazioaren" gain aberasten da.

Etxeko lanetara emanda dauden 186.000 pertsonen artean (hau da, "lan bila aritu gabe") %87,97 emakumeak dira. Honek esan nahi du 163.328 emakume daudela enplegu bila ari ez direnak, badutelako "dohainik" egiten duten lana: etxeko zaintza lana. Etxeko lanetan lan egiten duten emakume hauen guztien lana ezinbestekoa da eta ordaintzen ez diren lan hauen bidez, kapitalak doako langileak eskuratu ditu. Ekonomia feministan Amaia Perez Orozco-k "Langile Txanpinoa" gisa izendatutako figura sortzen da horrela: "Egunero merkaturako guztiz eskuragarri agertzen dena, norberaren zaintza-premiarik gabe eta besteren zainketen gaineko erantzukizunik gabe, eta behin enpresatik kanpo desagertzen dena". Lan-merkatuak behar duen lan eskua, zaintza lanak existituko ez balira bezala, guztiz aitortu gabeak, inbisibilizatuak eta doan.

Zaintza lanak aitortu eta balioa eman behar zaiela esaten dugunean, bada bizitza posible egiteko lan guzti hauei balioa ematea. Ariketa politiko bat egitea proposatzen dugu eta etxeko lanetara emanda dauden emakumeek Gutxieneko Soldata jasoko balute eta denboran eta dirutan kuantifikatu: Urtean 3.611.929.440€ -ko gastua suposatuko lioke sistemari, gaur egun doan egiten dena (Etxeko lanetan diharduten emakumeei Gutxieneko Soldata (1570€, 14 pagatan) jasoko balute). Eusko Jaurlaritzak 2024rako duen Aurrekontu Proiektu osoa 15.025.000.000€-koa da; beraz, etxeko lanetan diharduten emakumeen soldata Aurrekontu Proiektuaren %24a litzateke.

Generoa, arraza, klase soziala eta jatorriaren ardatzen zeharkatzen dute zaintzen banaketa desorekatua. Sistemak etekina ateratzeko esplotazioan oinarritzen den egoera horien artean muturreko egoerak daude eta asko eta asko emakume migratuak dira. Etxeko langileen Sistema Berezian %96,13a emakumea da eta %42,34 estatutik kanpoko jatorria du (horien artean, %85,84a Europar Batasunatik kanpoko). Zaintza kate globalak eragiten du, emakume migratu eta arrazializatuaren gain kokatzea pertsonen zaintzarako eskulan merkea. Izan ere, "inork egin nahi ez dituen" lan horiek betetzera munduaren hegoaldeko langile klaseko emakumeek.

- Legez, SMI-aren pareko soldata dagokien arren, ez da ohikoena. Langile egoiliarren kasuan, soldata 900€ eta 1.100€ artean dagoela kalkulatu behar dute sektoreko langileek. Era berean, egoera zaurgarriagoan dauden (etorri berriak, babes sarerik gabekoak, informaziorik gabekoak...) egoiliarren diren langile asko 300€ eta 500€ arteko soldata dute, janaria eta bizitzeko lau pareta bermatuak dituztela argudiatuz. Beraz, legeak ezartzen duen gutxiengotik behera etxeko langile asko kokatzen dira.

- Ezkutuko ekonomia oso zabaldua dago sektorean, %30aren bueltan egon daiteke sektoreko langileen hipotesien arabera.

Instituzioetatik pribatizazioari alfombra gorria jartzen zaio. Emakume zaintzaileak ez daude prekarietate egoeran zaintza lanetan aritzeagatik, baizik eta zaintza lan horiek daukaten aitortza eza, balio sozial eta ekonomiko gutxia eta guttiz pribatizatuta egoteagatik.

Gaur egungo zaintza-erregimena bidegabea, desorekatua eta mugatua da. Denbora eta lurralde testuinguruetatik harago, emakumeak* gara bizitzari eusten diogunak, eta oso modu desparekatuan egiten dugu, esplotazio eta prekarizazio baldintzetan. Horren aurrean, pribilegio tokietan (botere politiko eta ekonomikoak, erakunde publikoak, enpresa pribatuak, gizon-izatea, zuri-izatea...) zaintzaren erantzukizunari uko egiten zaio sistematikoki. Sustatzen diren politika publiko (gutxiak) familiaristak dira: zaintzen "marroia" familia barruan eta emakumeengan uzteko eredia erreproduzitzen eta sustatzen diru publikoarekin.

Zaintza ereduaren argazkiaren balorazioa:

- Errealitate guzti hau eta zaintza eredu hau ez da kasualitatea. Aztertutako datuek erakusten digute Zaintza Sistema Publiko Komunitario bat ez garatzeak eta ez indartzeak beti ekarriko duela emakumeak kontratatzea zaintza lan hauek modu "pribatuagoan" -familiar- kudeatzea eta sistemak ez du bermatzen (kontrakoa sustatzen du) baldintza egokietan emango direnik zaintza lan hauek. Beraz, Zaintza sistema publikoaren beharra azpimarratzen dugu.
- Gizonek ardura gehiagorik ez hartzeak emakumeon prekarizazioa dakar, eta hau seinalatu eta azpimarratu behar da. Zaintza lanak era justu batean banatzeko gaur egun gizonek horretara dedikatzen duten denbora igo beharko lukete desorekak ekiditeko. Horrek enpleguaren antolaketan ordutegiak eta baimenak aldatu beharko luketela ere suposatuko luke.
- Ez dago lan baldintzen inguruko kontrolik eta zaintza langileen baldintza duindu beharra urgentzia bat da:
 - Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraziz, Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartuz (Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berretsiz), etxeko langileei gutxienezko soldatetik gorako lansariak ezarri...
- Prekarietatearen inguruan hitz egiten dugunean aipatu behar dugu ez dela soilik ardatz ekonomikoan oinarritzen den zerbait. Prekarietateak emakumeon bizitzak gurutzatzen ditu. Zaintzaren eremuan prekaritateaz eta pobreziaz hitz egiten dugunean denboraren pobreziaz ere hitz egin behar dugu: denbora librerik ez izatea ere prekaritate da.
 - Parte hartze politikoan eragiten du, zaintza lanetan dauden emakumeek ez daukate denborarik nola zaindu nahi erabaki zein aldarrikatzeko...
- Produktibo-erreproduktibo deritzon dikotomia gainditzeko garaia da. Izan ere, hori gainditzean konturatzen gara bizitza ez dela berez gertatzen, hau da, bizitza posiblea dela zaindu egiten bada. Era berean, ekonomia kapitalista heteropatriarkalean enplegua bizi proiektu bat garatu ahal izateko eta eskubideak izateko modu bakar gisa aurkezten zaigu. Behar hori baliatuta gutxi batzuk aberasteko zaintzaren eremuan ere eskulan merke gisa erabiltzen gaituzte.

Bizitzak erdigunean jarriko dituen eredu politiko, ekonomiko eta soziala helburu dugu. Bide horretan, zaintza lanak aitortu (ekonomiko, sozial, politikoki) eta banatu behar direla aldarrikatzeko aterako gara Azaroaren 30ean Greba Feminista Orokorrean!

AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

1. Zaintzara emandako enplegua eta lan guztiak prekarioak dira

Bizi dugun testuinguru sozioekonomiko ezegonkorrean, prekarietatea ezin dugu langabeziarekin soilik edo modu hertsian erkatu. Ikusmira zabaldu behar dugu, gaur egun enplegua edukitzeak ez baititu bizi baldintza duinak bermatzeko nahiko diru-sarrera bermatzen. Gero eta langile prekario gehiago dago, jasotzen den soldatarekin eguneroko gastuei aurre egin ezinik. 2023.urtean zehar, soldata osatzeko eskatu diren DSBE hazi egin dira, urtariletik aktibo dauden espediente mota honen kopurua %15,67 handitu delarik (horietatik %66,88a emakumeena da)¹.

Horregatik diogu, prekarietate egoera aztertzerako orduan, ikusmira zabaldu eta aldagai berriak gurutzatu behar ditugu. 2022ko azaroan kaleratu genuen 11. Ikusmiran Prekarietate Indizea kuantifikatu genuen, HEH-ko 25 eta 64 urte arteko herritarren %53,52a egoera prekarioan bizi zela ondorioztatuz. Hau da, 2 herritarretik 1ek ez du lan duina edota diru-sarrera nahikorik.

Kopuru honi pentsiodunen egoera gordina gehitu behar diogu. Izan ere, Hego Euskal Herriko pentsiodunen %34,5ak 1.000€ baino gutxiago kobratzen du, hauetatik %66,7a emakumeak izanik. Era berean, pentsiodunen %57ak 1.000 eta 2.800€ artean jasotzen du; beraz, pentsa liteke 1.200€ edo gutxiago kobratzen duten pentsiodun multzo handia egongo dela².

Prekarietate Indizea lan honetan aztergai ditugun sektore zein eremuetara ekarri, esan dezakegu zaintza lan eta enpleguetara dedikatzen diren langileak (hau da lan ordaindu zein ordaindu gabekoetan, eremu pribatua aritzen direnak edota enplegua dutenak) prekarietate egoeran bizi direla, ia bere osotasunean. Enplegua izan arren, hau da, egiten dituzten zaintza lanak ekonomikoki (gutxi) aitortuak egon arren, bizitza duina bermatzeko diru-sarrera nahikorik ez dute.

- Etxeko lanetan HEH-an 186.800 herritar dihardute eta gehiengoa, %87,97a, emakumea da³ Herritar hauek inaktibo gisa sailkatzen dira inkestatan, hau da, ez daude lan bila, baina euren jarduera nagusia etxeko lanak dira; beraz, eremu pribatua etxeko lanetara dedikatzen diren emakumeak dira, inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe egiten dute lan jardun osoan.
- Etxeko langileen batez besteko soldata Espainiar estatuko Langile Estatutuan zehazturikoa da, 1080€-ko soldata brutoa 14 pagatan 2023.urtean (espainiar estatuko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren parekoa). Kasu honetan, azpimarratu behar dugu etxeko langile asko eta asko legez ezarritakoaren azpitik jasotzen dutela.
- HEH-ko batez besteko Helduen egoitzatako langileen oinarrizko soldata 1.444,74€koa da; beraz, beharko lukeen Gutxieneko Soldataren azpikoa.
- Etxez etxeko zerbitzuaren ezaugarriak arautu eta garatzeko eskumena tokian tokiko instituzioek dute, Udalek edota Mankomunitateek. Eremu honetan dagoen pribatizaziorako joera handia da eta kasu gehienetan Udalek enpresa bat azpikontratzen dute zerbitzua emateko. Kontratazio hori gauzatzeko, ordea, Udalek zehazturiko araudi orokor zein pliegoak betearazleak dira.
 - Eibarreko etxez etxeko zerbitzua daraman Sacyr enpresan indarrean dagoen Lan Hitzarmena aztertu dugu⁴. Etxez etxeko laguntzailearen lan ordua 11,60€ gordinetan zehaztua dago. Beraz, etxez etxeko laguntza ematen duen langilearen urteko oinarrizko soldata (lanordua balioa eta kopurua kontutan hartuz, 14 pagatan) 22.182,96€ da, hileko 1584,5€, 14 pagatan.

Lana edo etxetik kanpoko enplegua izan arren, bizitza duina bermatzeko diru sarrera nahikorik ez

Azken urteetan egoera sozioekonomikoa oso aldakorra izan da, arrazoi ezberdinak tarteko. Jendartearen eta langile klasearen prekarietate zein pobretze prozesuan eragin nabarmena izan du bizitzaren garestitzeak, bizi unitateetako diru-sarrerak KPI-aren proportzio berean igo ez diren bitartean.

1.400€-tako Lanbidearte Gutxieneko Soldata kalkulatzeko 2018ko datuak eskaintzen zituen estatistika baliatu genuen⁵, baina gaur gaurkoz eguneratu ezin daitekeenez, KPI-aren igoeraren arabera estimazioa egin dugu, 2018tik 2022ra KPIaren

1 Lanbide, "DSBE espediente aktiboak"

2 Ikusmiran 11, Euskal Herriko langilearen lan eta bizi baldintzak. IPAR HEGOA Fundazioa

3 Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2023ko 2.hiruhilabetea

4 Sacyr enpresa hautatu dugu, Udalek maiz azpikontratzen duten enpresa delako eta ondorioz, langile kopuru handia duelako soldatapean. Beraz, etxez etxeko lan merkatuan gertatzen den errealitatearen zati handia islatu dezakeelako, nahiz eta jakin badakigun lan baldintza kaxkarragoak ere jasotzen dituzten Lan Hitzarmenak egon badauden.

5 INEK kaleratzen duen "Soldata egiturari buruzko lau-urteko inkesta" 4 urtean behin eguneratzen da. Prekarietate Indizea zehaztu genuenean, 2019an publiko egindako 2018. urteko datuak erabili genituen; beraz, 2022ko datuak bilduko dituen estatistika aurki publikatuko bada ere, ez daude eskuragarri. Estatistika hori lehenesten dugu jardunaldi osoko soldaten arabera kalkulua egitea ahalbideratzen duelako, soldata baxuagoak dituzten jardunaldi partzialak alboratuz

urteko batzbesteko metatua aplikatuz (%12,16). Modu horretan, Gutxieneko Soldata 1570€koa beharko luke izan (14 pagatan)

Argipen hau eginda, datuetan argi ikus daitekeen bezala zaintza lanetara emanda dauden sektoreetako langileak prekarioak dira, lana edo etxetik kanpoko enplegua izan arren, bizitza duina garatzeko diru-sarrerara nahikorik ez dute. Izan ere, aztertu ditugun sektoreetako batezbesteko soldatak KPI-aren arabera eguneraturiko Gutxieneko Soldataren (1.570€) azpitik daude.

Prekarioak izan arren, BPG-arekiko pisu handia

Langile prekarioak izan arren, ordea, egiten duten lanak Hego Euskal Herriko BPG-arekiko %25,75 pisua eta garrantzia dute. Horretarako, etxeko lanetan diharduten pertsonak eta zaintza sektoreko soldatapeko langileek (etxeko langileak eta gizarte zerbitzuetakoak) 2020ean izaniko produkzioa kalkulatu dugu, euren batez besteko soldatetik (urtean behar diren jardunaldi osoko langileen arabera). Ondoren, sektore bakoitzari estatistikek esleitzen dioten BPG-arekiko balioari, neurtu dugun zaintza sektorearen produkzioa txertatu dugu, sektore bakoitzak BPG-arekiko duen %a horren arabera egokituz. Jarraian agertzen den grafikoan argi ikus daitekeen bezala, lan erreproduktiboa eta gizarte zerbitzuetako langileek sortzen duten aberastasuna BPG-arekiko (%25,75) eraikuntzak (%4,20) eta industria sektoreak (%17,19) sortzen duenaren gainetik legoke.


BPG SEKTOREAK, LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ZAINZA SEKTOREA KONTUTAN HARTUTA, 2020 EAE

	Kopurua	%
Lehen sektorea	515.277.000 €	%0,60
Industria	14.822.920.000 €	%17,19
Eraikuntza	3.616.736.000 €	%4,20
Zerbitzuak	45.059.526.613 €	%52,26
Zaintza	22.199.770.387 €	%25,75
Zerga aurretik guztira	86.214.230.000 €	%100,00
BPG merkatu prezioan	93.124.692.000 €	

Iturria: EUSTAT eta guk erabilitako datuak (Eustat eta TGSS)

10

**BPG SEKTOREKA, LAN ERREPRODUKTIBOA
ETA ZAINZA KONTUTAN HARTUTA (2020 EAE)**



Iturria: EUSTAT eta guk erabilitako datuak (Eustat eta TGSS)

Kontraesankorra iruditu arren, kapitalismo heteropatriarkarraren logika politikoan bete-betean kokatzen da. Izan ere, zaintza lanak merke ateratzen zaizkio sistemari (soldatak, ordaindu gabeko ordu ekstrak...), langileon bizitzak prekarizatuz, aberastasuna kapitala gutxi batzuen esku metatzen jarraitzeko. Bitartean, BPG-arekiko pisu handia duten zaintza lanei balio ekonomiko zein sozial eskasa aitortzen dion sistemak eraikuntza sektorearen espekulazioan, industria enpresa handien mozkinetan edota kontsumo eredu neurrigabearen oinarritzen da.

Beraz, zaintza erdigunean izango duen eredu berriak, zaintza lan zein enplegu guztien aitortza ekonomiko zein soziala bermatu beharko luke, ekonomia eta lan harremanen logika eguneratu batekin.

Jakin badakigu BPG ekonomiaren hazkunde monetarioa modu isolatuan neurtzen duela (aldagai soziala, ingurumena etabar kontutan hartu gabe), baina sistema kapitalistaren egitura eta horren mesedetan hartzen diren erabakiak politikoki kokatzen laguntzen du.

2. Zaintza lanetan emakumeei inposatzen zaie ardura nagusia

Eremu pribatuan egiten diren zaintza edota etxeko lanen arduradun nagusia emakumea izaten jarraitzen du. Familia nuklearraren eredu tradizionalak, maitasun erromantikoaren usteak, heteroarauak, zenbait sinesmenek edota sistema sozioekonomikoaren antolaketak berak, emakumea eremu pribatura baztertu du, zaintza lanak emakumeon arduratzat izendatu ditu. Feminismoak errealitate hau politizatu eta esparru publikora eramateak, eraldaketa baterako prozesua martxan jarri du, politika publikoen norabidea zertxobait mugitzera behartuz. Hain zuzen ere, politika publikoen eremuan eman beharreko urrats ezegonkor zein borondate politiko eskasak, eraldaketaren erritmoak mantsotzeaz gain, ardura emakumearengan birkokatzen saiatu da (adib, enplegua eta zaintza lanak kontziliatzeko politika eraginkorrik eza). Modu honetan, emakumea lan merkatuan sartzean, lehendik zetozkion etxeko lanekin zamatu du, lanaldi bikoitza nagusituz.

Etxeko lan eta zaintza lanen ardura nagusia emakumeena da

EAEen eremu pribatuan egiten diren etxeko eta zaintza lanen %67,2a emakumeek egiten dute⁶

ETXEKO LANAK SEXUAREN ARABERA BANATUTA, EAE %

	2018		2013	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ostatua ematea	%38	%62	%37,6	%62,4
Jaten ematea	%30,9	%69,1	%31,2	%68,8
Zaintzea eta heziketa ematea	%34,7	%65,3	%35,7	%64,3
Arropa eta bestelakoak ematea	%17,4	%82,6	%22,9	%77,1
Etxeko produkzioa guztira	%32,8	%67,2	%33,3	%66,7

Iturria: EUSTAT, Etxeko lanaren kontu satelitea

- Zaintza lanetara dedikaturiko denbora (ume zein helduen zaintza) azken 25 urteetan zerbait handitu da eta bestelako etxeko lanetarako erabili den denbora izan da jaitsiera handiena izan duena⁷

6 EUSTAT, etxeko lanaren kontu satelitea. EAE, 2018

7 EUSTAT, Denbora aurrekontuen inkesta, 2018 EAE


PERTSONA BAKOITZAK BATAZBESTE EGUNEAN ESKAINITAKO DENBORA (EAE 1993-2018)

	1993	2018	Aldea 93-18	Aldea %
Elikagaien prestaketa	01:01:00	00:47:00	-00:14:00	-22,95
Garbiketa	00:36:00	00:30:00	-00:06:00	-16,67
Arropa	00:15:00	00:09:00	-00:06:00	-40
Erosketak	00:25:00	00:21:00	-00:04:00	-16
Umeen zaintza	00:10:00	00:16:00	00:06:00	60
Jolasak eta heziketa	00:06:00	00:13:00	00:07:00	116,67
Helduen zaintza	00:01:00	00:07:00	00:06:00	600

Iturria: EUSTAT, Denbora aurrekontu inkesta

- Etxeko lanak egiteko maiztasuna aztertzen badugu, etxetik kanpo lan egin edota enplegua duten langileen artean, gizonen artean etxeko lanak inoiz ez egiteko joera dezente handiagoa da (%80,7a) emakumeen artean baino (%18,1)⁸ Normalean etxeko lanak egiten dituztenen artean, gizon eta emakumeen arteko oreka handiagoa da, emakumeak gehiago izan arren etxetik kanpo lan egin edo enplegua dutenen kasuan (%52,1) edota ez dutenen artean (%62,9)

ETXETIK KANPO LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIAREN EGUNEKO BATEZ BESTEKO DENBORA ETXEKO LANETAN SEXUAREN ARABERA. ORDUAK. 2010-2021 (EAE)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta

EAEKO BIZTANLERIA, ETXEKO LANAK EGITEKO DUEN MAIZTASUNAREN ARABERA, SEXUA ETA LAN JARDUERAREKIKO HARREMANEAN (2023KO 2.H)

Sexua	Egoera	Normalean	Inoiz ez
Gizonak	Aktibo	47,9%	80,7%
	Ez aktibo	37,1%	50,8%
Emakumeak	Aktibo	52,1%	18,1%
	Ez aktibo	62,9%	49,4%

- Etxetik kanpo lan egin edota enplegua duten langileen artean, emakumeak dira zaintzari ordu gehien eskaintzen diotenak batez beste.
 - Etxetik kanpo lan egin edota enplegua duten gizon eta emakumeen batez besteko orduan, etxeko lanetan, 2010 – 2022⁹
- Hiru aldagaietan emakumea nagusi izan arren, adierazgarria da menpeko pertsonen zaintzan, etxetik kanpo lan egin edota enplegua duten emakumeen ordu kopuruaren batez bestekoak izaniko beherakada. Menpeko pertsonen zaintzari gizon zein emakumeek eskaintzen dizkioten ordu kopuruaren batez bestekoak egin du behera, emakumeen kasuan %46,5a izanik jaitsiera, 2010etik 2022ra. Demografiaren garapena kontutan hartuz, ezin da jaitsiera hau azaldu; bai ordea, zaintza lan hauek beste norbaitek egitera pasa izana ondorioztatzen badugu. Izan ere, menpeko pertsonen zaintza kontratatzeke joera handitu da, lan baldintza prekariodun langileak kontratatuz edota ezkutuko ekonomiaren bidez aurrerago ikusiko dugun bezala.

ETXETIK KANPO LAN EGIN EDO ENPLEGUA DUTEN LANGILEEK ZAINZARI ESKAINTZEN DIZKIOTEN BATEZ BESTEKO ORDUAK, SEXUAREN ARABERA, 2010 - 2022 ALDERAKETA

	2010/2022	
	Gizonak	Emakumeak
Etxeko lanak	15,4%	-13,0
Adingabeko seme-alaben zaintza	28,6%	0,0
Mendeko pertsonen zaintza	-10,5%	-46,5

Iturria: EUSTAT.

- Umeen zaintzari dagokionean, emakumea da arduradun nagusia, zaintza lan orduetan (emakumea %2,5, gizona %0,5), lan orduetatik kanpo (emakumea %9, gizona %2,2) edota eskola orduetatik kanpo (emakumea %14,5, gizona 2,2) gertatzen denean. Umearen zaintza hori noizbehinkakoa edo esporadikoa denean, aurreikusi gabekoa, emakumeen ardura asko handitzen da (%25,1 emakumea, %6,3 gizona).
- Menpeko pertsonen zaintzari dagokionean, ordea, ardura soldatarik gabeko senitartekoez (%51,23), ordainsaria duen beste pertsona batek (%21,24) edota zerbitzu sozialek (%18,58) dute.

Etxeko langileen sistema berezian afiliaturiko langileen %96,13a emakumea¹⁰ eta %43,34ak espainiar estatutik kanpoko jatorria du

2023ko irailean, 34.928 langile daude Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatuta, Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileriaren %3,3a edota Erregimen guztiak kontutan hartuta, afiliazioaren %2,68a. Etxeko langileen Sistema Berezian %96,13a emakumea da eta %42,34 estatutik kanpoko jatorria du (horien artean, %85,84a Europar Batasunetik kanpoko).

Emakume migratzaileak gehiengo den sektore honetan, Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliaturiko langile kopurua baino langile gehiagok egiten dute lan. Ezkutuko ekonomia oso zabaldua dago, migraturiko langileen egoera administratibo irregularragatik edota Gizarte Segurantzaren altza ez zaielako ematen, enpleatzaileek gastua aurrezteko. Hori dela eta, ezinezkoa da datu estatistiko zehatzak eskuratzea. Jarraian, hainbat aditu zein arituren erreferentziako datuak:

- Euskal Herriko Bilgune Feministak berriki kaleratu duen "Euskal Herriko zaintza erregimenaren Erradiografia" azterlanean, Etxeko langileen sektorean lan egiten duten beharginen %30a egoera irregularrean dago.
- Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak kaleraturiko estatistiketan arreta jarritz, migrazioa – emakumea- egoera irregularra ekuazio berean doazela ondoriozta dezakegu¹¹:

9 EUSTAT

10 Espainiar estatutiko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra, 2023ko iraila (hileko batezbestekoa)

11 Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak publikaturiko estatistika, 2021. urtean zehar egindako aholkulariztatik ustiatutako datuetan oinarritua.

- Langile egoiliarren %33,88k egoera administratibo irregularra du. Kopurua %46,40ra ailegutzen da Europar Batasunatik kanpokoak soilik kontutan hartzen badira.
- Langile externoen kasuan, langileen %10,79a zegoen egoera irregularrean, Europar Batasunatik kanpoko langileen %25,56a

Zaintzara loturiko enpleguak feminizatuak daude

Eremu pribatuan egiten diren zaintza lanen ardura nagusia emakumeena izateaz gain, zaintzari loturiko etxetik kanpoko enpleguetan emakumeak dira nagusi. Hori dela eta, sektoreok feminizatuak direla esaten da.


- Kontzertatuta dauden Helduen Egoitzetako langileen %84,13a emakumea da¹²
- Zerbitzu sozialetako langileen %68,22a emakumea den bitartean, zerbitzu pertsonalak (zaintzaileak, etxez etxeko laguntzaileak...) eskaintzen dituzten langileen %84,33a da emakumea¹³.

3. Zaintza lan ez ordainduen bidez, kapitalak doako langileak eskuratu ditu...

Etxeko lanetara emanda daudenen artean, %87,97a emakumeak dira

2023.urtean Hego Euskal Herrian 186.800 pertsona zeuden etxeko lanetara emanda, lan bila aritu gabe¹⁴ eta horietatik %87,97a emakumeak ziren, zehazki, 163.328 emakume. Pertsona hauek guztiek etxeko lanetan jarduten dute, inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe, bizitzak aurrera egin dezan ezinbestekoak diren lanetan. Sistema kapitalista heteropatriarkarrak "etxekoandre" gisa definitu zituen, eremu pribatu edo etxe barrukoa, eskusiboki, emakumearena izendatuz. Bada, etxeko lanetan lan egiten duten emakume hauen guztien lana ezinbestekoa da eta ordaintzen ez diren lan hauen bidez, kapitalak doako langileak eskuratu ditu.

LAN BILA EZ DABILTZAN ETA ETXEKO LANERA EMANDA DAUDEN HERRITARRAK/ PERTSONAK (EAE 2018)



Iturria: EUSTAT, Denboraren aurrekontu inkesta

Etxeko lanetara emanda dauden emakumeek Gutxieneko Soldata jasoko balute, 2024rako Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Proiektuaren %24a suposatuko luke

Jarraian, etxeko lanetara emanda dauden langileen egoera ikusarazi zein aitortzeko, euren lana denboran eta dirutan kuantifikatu dugu.

- Etxeko lanetan diharduten emakumeei Gutxieneko Soldata (1570€, 14 pagatan) jasoko balute, urtean 3.611.929.440€ -ko gastua suposatuko lioke sistemari, gaur egun doan egiten dena.
 - Eusko Jaurlaritzak 2024rako duen Aurrekontu Proiektu osoa 15.025.000.000€-koa da; beraz, etxeko lanetan diharduten emakumeen soldata Aurrekontu Proiektuaren %24a litzateke.

12 EUSTAT, 2020

13 EUSTAT, 2020

14 INE, 2023ko 2.hiruhilabetea "inaktiboak, inaktibitate mota nagusiaren eta sexuaren arabera. Milaka pertsona


Etxeko lanetan diharduten emakumeen lanaldia, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako maisu/maistra baten ia hirukoitza da edota Bizkaiko Metaleko Lan Hitzarmenean jasotakoa baino %45 handiagoa.

- Denbora kuantifikatzeko, etxeko lanetara emanda dagoen emakumeak etxeko lan bakoitza egiteko egunean batez besteko erabiltzen duen denbora hartu¹⁵ eta urteko kalkulua atera dugu. 7 lan eguneko astea hartu dugu, asteburu zein jai egunetan ere etxeko lanak egin beharrekoak direlako. Gauzak horrela,
 - Urtean 3737,07 ordu egiten dituzte lan. Kopuruaren gordintasunaz ohartzeko, sektore ezberdinetako Lan Hitzarmenetan jasotako lanorduekin alderaketa egin dugu.
- Eibarreko etxez etxeko langileen azpikontratazioa duen Sacyr enpresako Lan Hitzarmenean urteko 1.592 orduko lanaldia zehazten du. Hau da, etxeko lanetara diharduen pertsona batek urtean 2.145 ordu gehiago sartzen ditu, ia ia bi lanaldi gehiago egiten ditu, doan.
- Bizkaian indarrean dagoen Metaleko Lan Hitzarmenak, urteko lanaldia 1.688 ordukoa zehazten du lanaldi jarraitua dutenentzat. Etxeko lanetan diharduten emakumeen lanorduak Bizkaiko Metalekoena baino %45 handiagoa da.
- Gizarte Ekimeneko Hitzarmenean, urteko lanorduak 1.307an zehazten dira maisu/ maiestrentzat, etxeko lanetara diharduten langileen aldean, ia ia 3 aldiz gutxiago.
 - Urtean lan egiten dituzten egunak aztertuz, urte batean 170,88 egun oso egiten dituzte lan. Hau da, urtearen %49,53a lanean jarduten dute.

4. ...eta zaintza sektoreko enpleguak gutxietsi ditu, ekonomikoki eta sozialki, erregimen orokorreko langileen %8,38a izan arren

Eremu pribatuan gelditzen diren etxeko lanez gain, etxetik kanpo egiten den zaintza lan ordaindua ere gutxietsia dago ekonomikoki zein sozialki. Lan baldintza oso prekarioak dituen sektore baten aurrean gaude, zaintzako langileek erregimen orokorreko langileen %8,38a izan arren¹⁶. Beraz, langile kopuruari dagokionean, zaintza sektore gisa aztertu dugunak eraikuntza edota lehen sektorea baino pisu handiagoa dauka.

ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATURIKO LENGILEAK, SEKTOREAREN ARABERA



* Etxeko langileak + gizarte zerbitzuetako langileak

Iturria: SEPE, TGSS eta EUSTAT

Erregimen orokorreko emakume langileen artean %13,74 zaintza lanetan aritu zen 2020 urtean.

15 EUSTAT, Denboraren Aurrekontu Inkesta 2018

16 INE, 2020. Datua etxeko langileak eta gizarte zerbitzuetako langileak kontutan hartuta atera dugu eta kanpo gelditu dira ezkutuko ekonomian daudenak zein gizarte zerbitzuetan bolondres aritzen direnak.

ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATURIKO EMAKUMEEN ARTEAN, ZAINZARA DEDIKATZEN DIRENAK (EAE, 2012/2020)

	Guztira	Gizonak		Emakumeak	
	Kopurua	Kopurua	%	Kopurua	%
Erregimen orokorreko langile kopurua	756.010	387.315	%51,23	368.693	%48,77
Etxeko langile afiliazioa	27.855	1.091	%3,92	26.763	%96,08
Gizarte Zerbitzuak	35.036	11.133	%31,78	23.903	%68,22
Zaintza Guztira*	62.891	12.224	%19,44	50.666	%80,56
% Zaintza	%8,32		%3,16		%13,74

*Etxeko langileak + gizarte zerbitzuetako langileak
Iturria: SEPE, TGSS eta EUSTAT

Eskuratu ahal izan ditugun datuen arabera, 2020 urtean Gizarte zerbitzuetako langileen eta etxeko langileen soldatek BPGren %1,26 suposatu zuten zuen. Ehuneko oso txikia, langile kopurua eta betetzen duten funtzio soziala kontutan hartuz.

- Afiliatuta dauden etxeko langile eta Gizarte Zerbitzuetako langileen %80,56a emakumezkoa da
- EAeko gizarte zerbitzuetako soldatak, EAeko afiliazio osoaren soldaten %2,53a dira.

Hortaz, ondorioa argia da: etxeko langile zein gizarte zerbitzuetako langileen soldata baxuen ondorioz, BPG-ean duten pisua oso baxua da. Izan ere, BPG-arekiko duten produkzioa neurtzeko, langile bakoitzaren lan orduak zein lan horri aitortzen zaion balio ekonomikoa kontutan hartzen da.

Azterketa lan honetan landu ditugun zaintzari loturiko sektoreetako lan baldintzak prekarioak, ezegonkorak eta oinarriko eskubideen aurkakoak izatera iristen dira.

Etxeko langileen lan baldintzak prekarioak eta legez kanpokoak dira maiz

Etxeko langileen lan baldintzak prekarioak eta irregularrak dira: soldata baxuak, jai egun ez ordainduak, aparteko ordu ez aitortuak, lanaldi luzeak, bizitza pertsonala zein laborala kontziliatzeko zailtasunak... besteak beste¹⁷

- Legez, SMI-aren pareko soldata dagokien arren, ez da ohikoa. Langile egoiliarren kasuan, soldata 900€ eta 1.100€ artean dagoela kalkulatu dute sektoreko langileek. Era berean, egoera zaurgarriagoan dauden (etorri berriak, babes sarrerik gabekoak, informaziorik gabekoak...) egoiliarren diren langile asko 300€ eta 500€ arteko soldata dute, janaria eta bizitzeko lau pareta bermatuak dituztela argudiatuz. Beraz, legez ezartzen duen gutxiengotik behera etxeko langile asko kokatzen dira.
- Ezkutuko ekonomia oso zabaldua dago sektorean, %30aren bueltan egon daiteke sektoreko langileen esanetan.
- Etxeko langile asko, Gizarte Segurantzaren alta emanda egon arren, dagokiena baino beherago dagoen tramuan daude alta emanda eta soldata baxuagoa dagokie. Hau enplegatzaileentzat da onuragarria, kuota txikiagoa ordaintzen duelako, langilearen kaltetan. Izan ere, etorkizunean langileak eskuratuko dituen prestazioak (langabezia, pentsioa, baja...) egiazki jasotako soldataren arabera izango baitira, lan egindako guztia aitortua balu baino txikiagoa. Jakin badakigu, etxeko langile migratu askok xantaia jasotzen dutela Gizarte Segurantzako kuota bere gain hartzeko xantaia jasotzen
- Etxeko langileek, oro har, ez dute kobratzen egiten duten lanaldiaren proportzio berean. Sektoreko langileek salatzen dutenez, orduka lan egiten duten kanpo-langileen kasuan, gero eta lanordu gehiago sartu (astean 20, 30, 40...), proportzioan gutxiago kobratzen dute.
- Lan kontratuetan irregulartasunak dira nagusi. Izan ere, lan kontratu batzuk ahoz egiten dira (egoera administratibo irregularrean dauden langile migratuen kasuan, bereziki) eta kontratuen gehiengoan ez dira islatzen lan baldintza errealak. Langile egoiliarren kasuan, adibidez, ezin da kontratu bidez zehaztu gaua lanean pasatzen duten egunak edota presentziako orduak direnak.
- Pertsona helduen zaintzan edota menpekotasun maila handia dagoenean, langile egoiliarren erregimena nagusitzen da. Zaintza

17 Etxeko langileen errealitatea, araubidea zein lan baldintzak 2020an publikatu genuen Ikusmiran monografiko batean landu genuen. "Etxe barruan ezkututzen dena" azterketa lana lotura honetan eskuragarri: <https://www.iparhegoa.eus/azterketak/ikusmiran/ikusmiran-etxe-barruan-ekutzatzen-dena/>

lan horiez gain, etxeko langileak gainerako etxeko lanen ardura ere bere gain hartzen du, lanaldiak amaigabeak bilakatuz. Legeak asteko 60 orduko lanaldia baimendu arren, etxeko langile egoiliar askok astean 70 eta 90 ordu egiten dituzte lan, kontratuan konputatu gabe. Orduka lan egiten duten kanpoko etxeko langileen kasuan, ia egun osoko lanaldiak izan ohi dituzte, askotan goizeko 7:00-8:00tan hasi eta gaueko 20:00-21:00ak arte luzatzen direnak (astelehenik ostiralera eta larunbata goizetan batzuetan ere bai). Kasuistika oso zabala izan arren, eta askotan legeztatu gabea, lanaldi jarrai oso luzeak dituzte etxeko langileek.

- Lan Osasuna zaintzeko inolako bermerik edota kontrolik ez dute. Etxez etxeko zerbitzuan gertatzen den bezala, lan jarduera nagusia etxebizitza barruan egiten denez, ez dago inolako Lan Ikuskaritarik eta, ondorioz, oso zaila da laneko arriskuen prebentzio eraginkorra bermatzea. Beraz, ia ezinezkoa da langile hauen lan baldintza duinak bermatzea, honako bi arrazoiengatik: batetik, euren lan funtzioak egiteko behar den babes pertsonal egokia ez izatea eta, bestetik, ez dituztelako baliabide tekniko nahikorik erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Etxez- etxeko zerbitzuan, azpikontratazioa da nagusi

Arestian aipatu bezala, etxez etxeko zerbitzua tokian tokiko administrazio publikoek dute zerbitzua arautu eta langileak kontratatzeko eskumena, non enpresa pribatuen bidezko azpikontratazioa nagusia den. Hori dela eta, oso zaila da sektoreaz argazki bateratua lortzea. Dena den, azpimarratu behar dugu, Udalek pleguak ezarri arren, ohikoa dela azpikontratatutako enpresak ez betetzea.

- Hori dela eta, zaila da etxez etxeko langileen batez besteko soldata kalkulatzea. Azterlan honetan Eibarreko kasua aztertu dugu eta Udalak azpikontratatutako Sacyr enpresan adosturiko Lan Hitzarmenean etxez etxeko laguntzailearen soldata 1584,5€ean kokatzen da; beraz, Prekarietate Indizean eguneratu dugun Gutxieneko Soldataren mugan.
- Etxez etxeko zerbitzuaren egituraketa deszentralizatuak, langileen antolaketa zein baldintza hobetuko lituzkeen sektoreko Lan Hitzarmen bat eskuratzeko zailtasunak dakartza, langileak geografikoki dispersatuta eta lan baldintzak dibertsifikatuta baitituzte. Hori dela eta, ezberdintasun nabariak daude herri batetik bestera edota zerbitzua azpikontratatu edo publikoa den.
- Sektore feminizatua izanik, behin behineko kontratuen eta lanaldi partzialen tasa altua dute, estatistika ofizialek datu gehiegi ez eskaini arren.
- Etxeko lanetan gertatu bezala, lan jarduera etxebizitza barruan jazotzen denez, Lan Osasunaren berme zein kontrolerako inolako bermerik ez dago.

Prekarietatea, erresidentzietako langileen soldatan ere bai

Erresidentzietako langile gehienek batez besteko soldata estimatu dugun Gutxieneko Soldataren azpitik kokatzen da (1.444,74€). Eremu honetan, azpimarratu behar dugu Estatalizazioak lan baldintza kaxkarragoak dakartzala eta nabaria dela hemen eztabaidatzen zein borrokatzen diren Lan Hitzarmenek aukera handiak dituztela eskubide hobekuntzak jasotzeko. Modu horretan erraz ulertuko dugu Araba zein Nafarroako Erresidentzietako langileek batez besteko soldata baxuagoa edukitzea, Estatu espainiarreko Lan Hitzarmena aplikatzen zaielako (1.061,98€)


- Langile batek 92 minutu inguru igarotzen du egoiliar bakoitzarekin egunean. Honek lan zama handia ezartzen die langileei eta egoiliarrek egoera zaugarrian utzi: pertsona bat 10 minututan artatu behar dute (artatu, garbitu, jantzi...); gauean batez beste langile bakoitza 30-35 erabiltzailearen kargu egiten da, eguneko zaintzatan 15 egoiliarren kargu.¹⁸
- Sektore hau ere feminizatua izanik, jardunaldi partzialak eta behin behineko kontratuak emakumeen artean gizonen artean baino altuagoak direla. Adibidez, Desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala eta droga-mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-establezimenduetako laguntzan, behin behineko kontratuak % 25,5a dira. Emakumeek lan baldintzetan dituzten baldintzak egiturazkoak baitira, jarraian aztertuko dugun bezala.

Pribatizazioak lan baldintzen eta zerbitzuaren kalitatea okertzen ditu

- Puntu honetara iritsita, sektore publiko eta pribatuko langileen artean lan baldintzetan dagoen arrakala azpimarratu nahi dugu, pribatizazio prozesu orok lan baldintzen prekarizazioa eta zerbitzuaren kalitatea kaxkartzea baitakar.
 - Lehenik eta behin, erresidentzia publiko zein pribatuen finantziazioaren jatorrian jarriko dugu arreta. Jarraian dagoen grafikoan ikus daitekeen bezala, 1994tik erresidentzia publikoek izan duten finantziazio publikoaren kopurua beherantz doan bitartean, erresidentzia pribatuek izaniko finantziazio publikoak gora egin du.
 - 1994 urtean funts publikoetatik erresidentzietan inbertitzen zenaren %74,93 erresidentzia publikoetara bideratzen zen (%25,07 pribatuetera); 2020.urtean, %59,47ra jaitsi da. Erresidentzia pribatuetan, kontrako prozesua gertatu da: 1994an


erresidentzia pribatuen diru-sarreren %36,7a funts publikoetatik eratortzen da, 2020an funts hau %52,3ra igo da.

ERRESIDENTZIEN FINANTZIAZIOA (EAE, 1994-2020)




- Zerbitzu publikoa ahultzen duten erabaki politikoak, zerbitzuaren pribatizazioaren mesedetan
 - Batetik, zerbitzu publikoetako erabiltzaile eta langileen garapena zerbitzu pribatuetan baino proportzio baxuagoan garatzen ari dela ikus dezakegu jarraian agertzen den lehen grafikoan.

LANGILE ETA ERABILTZAILE GARAPENA (PUBLIKO-PRIBATU, 2000. URTEAREKIN ALDERATUTA)




- Garapen horren atzean erabaki politiko argia dago, titularitate publikoko zerbitzuen gastua nabarmen handitu baita (handitu den gastu hori zerbitzuak azpikontratatzera bideratu dela ondoriozta daiteke), langile zein gastu publikoa baino dezente gehiago handitu dena.

GASTU TASAREN GARAPENA



- Langile-gastu publikoaren murrizketa Lan Hitzarmenetan jasotzen den soldatekin alderatzen badugu, langile publikoen soldatak murriztetik ari da funts publikoko gastua jaisten. Kapitalismoak zaintza merkantilizatu egiten du.

GASTUA LANGILEEN SOLDATAN



5. Egoera estrukturala da

Lan merkaturan emakumeak pairatzen dituen lan baldintza prekarioak aski ezagunak dira. Jarraian, sistemak berak iraunarazten duen errealitatea zenbait datuetan azaltzen da:

Langabetuen %58,40 emakumea da

- Langabetuen %58,40a emakumea da. Beraz, ia ia langabezia dauden 10 pertsonatik 6 emakumeak dira¹⁹. Emakumeen langabezia hilabetez hilabete gora behera gutxi izaten dituen kopurua da, langabezia datu orokorrak behera egin arren. Langabezia emakumearen bizkar zamatzen ari dela ondoriozta dezakegu.

Emakumeen %23ak behin behineko kontratua du²⁰

- Gizon eta emakumeen artean kontratu mugagabea nagusi izan arren, emakumeen %23ak kontratu mugagabea du, gizonen artean proportzioa txikiagoa (%17,2) den bitartean.
- Hedatzen jarraitzen duen errealitatea da, pasa den urtetik hona, emakumeen kontratu partzialak %1a igo baitira

Emakumeen %25,4ak lanaldi partziala du²¹

- Lanaldiari dagokionean, emakumeen %25,4a dago lanaldi partzialesan, gizonen artean lanaldi partziala %10,7a den bitartean.
 - Aldizkako finkoei dagokionean, emakumeen tasak (%4) gizonen tasak (%2,4) bikoizten du. Emakumeen artean, beraz, bikoitza da enplegu prekario zein ezegonkorra hauspotzen duen kontratatu mota hau. Pasa den maiatzetik abuztura emakumeen artean, batez beste aldizkako kontratu finkoen %66,13 eten ziren, hainbat sektore feminizaturiko langileen (ikastetxeetako garbitzaileak, jantokietako hezitzaileak...) oporraldiak kontratu-etenaldi batekin mozorrotuz.

19 SEPE, 2023ko urria

20 Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2023ko 3.hiruhilabetea.

21 Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia, 2023ko iraila

HEGO EUSKAL HERRIKO AFILIZAZIOA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2023KO IRAILA)

	KONTRATU MOTA GUZTIAK	MUGAGABEA Jardunaldi OSOA	MUGAGABEA Jardunaldi PARTZIALA	MUGAGABEAK ALDIZKAKO FINKOAK	BEHIN BEHINEKOA J. OSOA	BEHIN BEHINEKOA J. PARTZIALA	Jardunaldi PARTZIALAK Guztira	Jardunaldi OSOAK Guztira
Denetara	1.039.910	56,8%	12,6%	3,2%	12,7%	5,2%	17,8%	69,5%
Emakumeak	500.754	43,7%	18,8%	4,0%	15,2%	6,6%	25,4%	59,0%
Gizonak	539.157	69,0%	6,9%	2,4%	10,4%	3,9%	10,7%	79,4%

Iturria: espainiar estatuko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia

Gero eta emakume gehiago lan bila, bizi unitatea sostengatzeko lanaldi bikoitzera behartuak

Emakumeen langabeziaren gorakadaren atzean (emakumeen langabezia tasa %9,6a da Hego Euskal Herrian)²², lan bila dabilzan emakumeen kopuruak (biztanleria aktibo gisa kontabilizatua BAI-n) gora izana dago. Oro har, lan bila dabilzan langileen kopuruak gora egin badu ere, modu nabarmenean egin dute gora lan bila dabilzan emakumeen kopuruak (pasa den hiruhilekotik 13.600 gehiago eta pasa den urtetik 21.000 emakume gehiago) eta proportzionalki ere altuagoa da lan bila dabilzan emakumeak (pasa den urtetik %3,27 gora egin dute lan bila dabilzan emakumeak, gizonetzkoen artean %0,51 igo da multzo hau).

Gero eta emakume gehiago lan bila aritzeak ez dio lan merkatuaren egonkortze edota lan baldintzen hobekuntzari erantzuten, baizik eta egoera sozioekonomiko prekario zein ezegonkorrek behartutako bizi egoera bati. Izan ere, KPI-aren igoerak oinarrizko elikagaien garestitzea ekarri du, soldata igoerak modu proportzionalean igo gabe, erosahalmenean galera suposatuz. Zentzu horretan, bizi unitateetako diru-sarrerak ez dira nahikoak eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko eta pandemia garaian lan merkatuan lana bilatzeari zioten emakumeek, bizi unitatearen sostengu ekonomikoa bermatzeko lan merkatura bueltatzen ari dira. Hau guztia emakumearentzat are eta prekarioagoa den eta sektore feminizatueta lan baldintzak kaxkarragoak diren lan merkatuan. Zerbitzuak sektorean langabeziak gora egin izana (aurreko hiruhilekoan baino %41,88 langabetu gehiago eta pasa den urtean baino %21,39 gehiago), emakumeak sektore honetan lana bilatzeko aukera ikustea dago, ziurrenik.

Soldata arrakala egiturazkoa da

Generoa, adina, kontratu mota edota nazionalitatearen arabera soldata arrakala egiturazkoa da Hego Euskal Herrian ere bai, urtez urte iraun eta handitzen ari dena. Eskuartean ditugun datuak 2021.urteko soldata egiturari buruzko inkestari dagozkionak dira, eskuragarri dauden azkenak.

Generoari dagokionean, 2021.urtean gizonen batz besteko soldata emakumezkoena baino %17,76 handiagoa da. Duela 10 urte zegoen proportzioa txikitu arren (2011.urteko soldata arrakala %24,84 zen), gaur gaurkoz soldata arrakala oso handia izaten jarraitzen du.

HEHKO BATEZ BESTEKO SOLDATA, SEXUAREN ARABERA (2021)

	HEH Guztira	Emakumeak	Gizonak
2011	25.910,33	21.876,75	29.108,46
2019	29.016,92	25.625,60	32.074,05
2020	29.707,89	26.412,55	32.641,07
2021	30.460,26	27.325,34	33.228,32

Iturria: INE, soldata egiturari buruzko inkesta

Sexu-generoaren aldagaiari, pertzentilak²³ edo soldata baxuena zein altuenaren artean dagoen aldea gurutzatuko bagenio, emakumeen artean dagoen soldata arrakala gizonetzkoen artekoa baino dexente handiagoa dela ikusiko dugu. Hau da, soldatarik baxuena jasotzen duten emakumeen %10ak, urtean 10.330€ko batez besteko soldata jasotzen du, soldata altuena duten emakumeen %10ak urtean 47.442€ko batez besteko soldata jasotzen duen bitartean. Beraz, soldata altuena jasotzen duen emakumearen diru-sarrera 3,5 aldiz altuagoa da, baxuena jasotzen duenarekin alderatuz. Gizonezkoen kasuan, aldea txikiagoa da, 1,15 aldiz handiagoa, hain zuzen ere.

2023ko otsailean kaleratu genuen "Soldata Arrakalaren azterketan" esan bezala, sektoreen arteko aldea ere nabarmena da. Modu honetan, emakumeak gehiago diren sektore feminizatuetan edota zaintza lanekin lotura duten sektoreetako soldatak baxuagoak dira, sektore maskulinizatuekin alderatuz, langileen lan kategorია berbera izan arren. Azterketa hartan Eraikuntza sektorean indarrean zeuden Lan Hitzarmenak eta Helduen egoitzatakoak aztertu genituen, herrialdeka, sektore bakoitzeko lan kategoría beraren taula salarrialak aztertuz, urteko batez besteko soldata alderatzeko. Jarraian agertzen den taulan, soldaten arteko ezberdintasunak agerikoak direla ikus daiteke.

HEGO EUSKAL HERRIKO HELDUEN EGOITZA ETA ERAIKUNTZAKO SOLDATEN ARTEKO ARRAKALA, HERRIALDEKA

	GIPUZKOA		BIZKAIA		ARABA*		NAFARROA*	
	Peoi arrunta	Biltegiko peoia	Peoi arrunta	Biltegiko peoia	Peoi arrunta	Garbitzailea	Peoi arrunta	Peoi espezialista
Eraikuntza	24.512,59	28.667,06	24.505,93	25.146,88	24.680,91	17.428	22.922,77	23.607,89
Helduen egoitzak	16.870	15.064	18.036,76	16.725,66	13.794,76	12.504,1	13.794,76	14.020,02
ALDEA	7.642,59	13.603,06	6.469,17	8.421,22	10.886,15	4.923,9	9.128,01	9.587,87
% sektore maskulinizatuek zenbat gehiago	%45,30	%90,30	%35,87	%50,35	%78,92	%39,38	%66,17	%68,39

*Hitzarmen estatala

Iturria: Ipar Hegoa Fundazioak lorturiko datuak, hitzarmenetan jasotako informazioaren arabera

Azken hilabeteetan soldata igoerak barneraturiko hainbat Lan Hitzarmen berri badiara ere (Bizkaiko Erresidentzietako Lan Hitzarmena, kasu), egoera egiturazkoa dela azpimarratu behar dugu. Izan ere, soldata igoerak ez dira KPI-aren arabera proportzionalki eta automatikoki igotzen eta langileen lan baldintzatan lortzen den hobekuntza oro, langileen borroka nekazinari esker lortu dira.

23 Urteko soldataren pertzentilak: soldata baxu eta altuenaren arteko alderaketak egiteko baliatzen den neurgailua da. Eskuarte dugu azterketa osatzeko, honako pertzentilak baliatu dira:

10.Pertzentzila: soldataren balioa, langileen %10 azpitik uzten duena. Beraz, soldata baxuena kuantifikatzeko baliatuko dugu

90.pertzentzila: soldataren balioa, langileen %90ak soldata baxuagoak dituztelarik. Beraz, soldata altuena kuantifikatzeko erabiltzen dugu.

